

BILBO
MAIATZAREN 16
10TIK 14RA
BOLUNTAKO
EKITALDI ARETOAN
ZABALBIDE KALEA 1



JARDUNALDIA

COMPLIANCEREN FUNTZIOA HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEETAN: IKUSPEGIA ETA ORIENTABIDE PRAKTIKOAK

ANTOLATZAILEAK



3S
 3S
 3S

LAGUNTZAILEA



[HIREKIN](#) eta [BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREKO BEHATOKIAK](#) Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak eguneratzeko eta hobetzeko helburua partekatzen dute, baita erakundeei derrigorrez bete beharreko eta kudeaketa hobetzeraz zuzendutako araudiaren bilakaerari buruzko informazioa eskaintzeko funtzioa ere.¹

Hain zuzen ere, araudia egokitzearekin eta betetzearekin lotuta, arlo desberdinetan, hainbat proposamen egin ditugu, eta horietako bat, datuak babesteko araudi orokorrari dagokiona, elkarlanean. Testuinguru honetan kokatzen da jarraian aurkeztzen dizuegun jardunaldia. Bertan, [WORLD COMPLIANCE ASSOCIATION \(WCA\)](#) “compliance” munduan interesa duten adituek eta erakundeek osatutako irabazi-asmorik gabeko Nazioarteko Elkartearen laguntza izango dugu.

Aurkezpena

Azken urteetan, hirugarren sektore sozialeko erakundeek, eta beste eragileekin eta sektoreekin funtzioak eta interakzioak dibertsifikatu dituzten horiek bereziki, ikusi dute erantzukizunek eta aplikagarri zaizkien eskakizunek eta lege-betebeharrek gora egin dutela.

Gizartearen eta esku-hartze soziala gero eta konplexuagoa izateak, eta gero eta handiagoa den profesionaltasunak eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek bultzatzen zituzten zerbitzu asko pixkanaka erantzukizun publikoaren gain geratzeak erakundeen kudeaketarekin edo esku-hartze sozialarekin zerikusia duten araudi-eskakizunak ugaritzea dakarte berekin, eta hala, beharrezkoa da ez-betetzetik eratorritako ondorioen araudi mailako definizioa ere.

¹ Behatokiak sektoreari eragiten dion eta nahitaez bete beharrekoa den araudiari buruzko informazioa eskaintzen du, aldizka eguneratuta, eta hemen kontsulta daiteke: <http://www.3sbizkaia.org/Menu.aspx?s=126>

Erakundeak pertsona juridiko gisa hartzen dituzten eskakizunak dira, eta horrela eragiten dieten ondorioak dakartza. Erakundeek ez dute, ikuspegi legetatik eta etikotik, beti kudeatzen, eta batzuetan, ez dituzte ezagutu ere egiten.

Adibide oso zehatz bat jartzearen, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2016ko maiatzaren 12ko 12/2016 legeak, bere 16. artikuluan, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketan laguntzen duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeentzako betebeharrak txertatu ditu.

Eta zehazki, hori ez betetzearen ondorio posibleak aipatzen ditu: *“Aipatutako obligazioak ez betetzeak euskal administrazio publikoekin lankidetzara eta elkarlana deuseztatzea ekar lezake berekin”*. Ondorio garrantzitsua da, baina beste kasu batzuetan, erakundeak lege-eskakizunak ez betetzeak zigor-ondorioak eragiten ditu.

Ilusio horretatik, 2015eko martxoaren 30eko 1/250 Lege Organikoak, beste hainbat arloren artean Zigor Kodearen 1995eko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duenak: bere artikulua bakarrean, hogoian, honako hau zehazten du²:

- *Pertsona juridikoak penalki erantzuleak diren kasuetan, guztiz, bere izenean edo bere kontura egindako delituei dagokienez, jardura sozialak egiten diren bitartean, eta zuzeneko edo zeharkako onuran.*
- *Pertsona juridikoa erantzukizunetik salbuetsita geratzen den edo zigorra arinduta gera daitekeen kasuak eta baldintzak, baldintza horietan onarpena eta exekuzioa eraginkortasunarekin txertatuz, egokiak izango diren antolaketa- eta kudeaketa-ereduen delitu-egitea baino lehen – zaintza- eta kontrol-neurri egokiak txertatuta- izaera bereko delituak saihesteko edo egiteko arriskua nabarmen murrizteko.*

Delituak lege-ordezkariek egingo balituzte, edo pertsona juridikoaren erakundeko kide gisa edo banaka jardunez, pertsona juridikoaren izenean erabakiak hartzeko baimenduta dauden edo bertan antolaketako eta kontrolatzeko gaitasunak dituztenek, eskatzen da ezarritako prebentzio-eredua betetzea eta martxan jartzea ekimeneko eta kontroleko ahalmen autonomoak dituen pertsona juridikoko erakunde batek gainbegiratua izatea, edo legez pertsona juridikoaren barne-kontrolen eraginkortasuna gainbegiratzeko funtzioaren ardura izatea².

Eta modu osagarrian: a) erakunde horren gainbegiraketa-, zaintza- eta kontrol-funtzioen ez-egiterik edo gutxiegi egiterik ez dela izan; b) banakako egileek egindako delituak iruzurrez itzuri izana antolaketa- eta prebentzio-eredu horiek.

Gainera, arauak ezartzen du antolaketa- eta kudeaketa-ereduek betebeharrak hauek bete behar dituztela:

² Neurri txikiko pertsona juridikoetan, gainbegiratzeko funtzioak zuzenean administrazio-organismoak har ditzake. Ondorio horietarako, neurri txikiko pertsona juridikoak dira, aplikagarri den legediaren arabera, galdu-irabazien kontu laburtuak aurkezteko baimena dutenak.

- Bere alorrean saihestuak izan behar diren delituak egin daitezkeen jarduerak identifikatuko dira.
- Pertsona juridikoaren borondatearen eraketa-prozesua, erabakiak hartzea eta horiek besteekin lotuta exekutatzeko zehaztuko duten protokoloak edo prozedurak ezarriko dira.
- Saihetsi behar diren delituak egitea eragozteko finantza-baliabide egokien kudeaketa-ereduak ezarriko dira.
- Prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzen dela zaintzeaz arduratzen den erakundeari arrisku eta ez-betetze posibleez informatzeko betebeharra ezarriko dute.
- Ereduak ezartzen dituen neurriak ez betetzea modu egokian zigortuko duen diziplinazko sistema ezarriko dute.
- Ereduaren eta horren behin-behineko aldaketaren aldian behingo egiaztatzea egingo dute xedapenen arau-hauste larriak agerian jartzen direnean, edo antolaketan, kontrol-egituran edo garatutako jardueran beharrezkotzat jotako aldaketak gertatzen direnean.

Azken finean, zigor-kodearen azken erreformek arloan aldaketa handiak ekarri dituzte mota eta baldintza guztietako erakunde juridikoetarako.

Horrela, 2010eko erreformak (5/2010 LO) erantzukizun penal korporatiboa txertatu du eta pertsona juridiko arduradunek katalogo edo delituen zerrenda batekin bat datorren zigorra jaso dezakete; aldiz, 2015eko erreformak (1/2015 LO) delituak saihesteko ereduaren ezarpena txertatzen du erakundeetan, zigor-erantzukizuna arintzeko edo salbuesteko modu gisa.

Data horretatik aurrera, mundu anglosaxoian lehendik garapen handia duen arren, gero eta ohikoagoa da **compliance** (betetzea) eta **zigor compliance-ren** funtzioarekin lotutako proposamenak, ekimenak eta zerbitzuak egotea.

Kasu honetan, **complianceren funtzioan jarri nahi dugu arreta ikuspegi zabaletik**. Funtzio hori garatzeak testuinguru etiko eta legalaren autoezagutza eta ezagutza-lana dakar erakunderako, betebeharrak betetzearekin eta garatzen den prozesuarekin lotutako antolaketa-eredua indartzearekin (gobernu korporatiboa, arduradun espezifikoa edo espezifikoak, erakunde osoaren inplikazioa) zerikusia duten arrisku posibleak antzemateko, saihesteko eta kudeatzeko mekanismoak ezartzea.

Horrela, Compliance-ren Espainiako Elkartek editatuta eta Alain Casanovasek koordinatutako lantaldeak eginda Liburu Zuriak Compliance-ren funtzioari buruz adierazten duen moduan: <<Compliance-ren funtzioak Compliance arriskuen [1.(2)] prebentzio-, antzemate- eta kudeaketa³ zereginak onartzen ditu Compliance Programa [1.(3)] baten edo hainbaten eragiketaren bidez, erakundean bertan betetzearen kultura sustatzen eta garatzen lagunduz>>.⁴

Erakundeetan, compliance-ren funtzioak compliance arriskuen (betebeharrak betetzea) eta ez-betetzeak izan ditzaken ondorio penalen eta ez-penalen antzematea, prebentzioa eta kudeaketa gaituzten du, eta ikuspegi etikotik, kudeaketan koherentzia bilatzera eta erakundeetako balio eta kode etikoekin esku hartzera bideratzen da.

³ Kudeaketatzat ulertuko da haren kontrola, erreakzioa, murrizketa eta abar.

⁴ Casanovas Ysla, A (koord.) *Libro Blanco sobre la función de Compliance*. Ed. Ascom, Madril, 2017ko martxoa, 51 orrialde.

Horrela, proposamen mota horiek zigor-arriskuen prebentziotik haratago doazen mekanismoak txertatu behar dituzte, erakunde arduratsuen eraikuntza sustatuz ikuspegi etikotik dimentsio desberdinetan.

Bestalde, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek ezaugarri eta egoera zehatzak partekatzen ditugu. Askotan, arrisku zehatzak izan ohi dira, materia penalean ondorio posibleak dituztenak, gure errealitaterako zehazki pentsatutako prebentzioko, antzemateko eta kudeaketako mekanismoak izatea derrigorrezkoa bihurtzen duten ondorio posibleekin. Sozietateko erakundeen etikari dagokionez aurreikuspen eta eskakizun sozialen koherentziaren eta igoeraren bilaketak compliance-ren funtzioa bultzatzea eta garapena jakinaraztea beharrezko egiten du, erakundeko interes talde desberdinetan, barnekoak eta kanpokoak, konfiantza sortuz.

Horretaz guztiaz hitz egin nahi dugu zuekin hurrengo jardunaldian, erakunde gisa bizi ditugun errealitate desberdinetan sakondu nahian eta kontzeptu, ikuspegi, erreferentzia, sistema eta tresna zehatzak partekatu nahian, baita compliance arloan jardunbide egokien adibide batzuk ere.

Helburuak

- Compliance-ren eta compliance penalaren funtzioa zer den ezagutzea, eta Hirugarren Sektore sozialeko erakundeetan duen bultzadaren garrantzia balioestea.
- Complianceren zenbait arrisku identifikatzea, oro har, eta Hirugarren Sektore Sozialean bereziki, eta erakundeek arlo horretan dituzten beharrak ebaluatzea.
- Erakundeek complianceren eta compliance penalaren funtzioen garapenarekin lotutako erreferentziak, sistemak eta tresnak ezagutzea.

Pertsona hartzaileak

Proposamen honetan, lehentasuna izango dute Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek eta sareek, eta bereziki zuzendaritza- eta kudeaketa-erantzukizunak dituzten pertsonak. Hala ere, ez da beste postu mota batzuetan dauden Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin lotutako pertsonak, boluntarioei, edo interesa duten beste publiko batzuei (sektore publikoarekin lotutako pertsonak, aholkularitza, prestakuntza...) itxita egongo.

Egitaraua

10.00. **Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena** Hirekin-en eta Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiaren eskutik.

10.05. **Partekatzeko eremua: galderak eta erantzunak** Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen errealitatetik (aurretiazko bilera egin liteke eta emaitzak labur hemen jakinarazi; bilerak balioko luke baita ere emaitza hizlariei jakinarazteko eta ikuspegia hobetzeko).

10.35. Hitzaldia. "Complianceren funtzioa hirugarren sektore sozialeko erakundeetan: helburuak, prozesua, eragileak... eta garapenerako erreferentzia praktikoak".

- **Fernando Casas Gallego**. Abokatua, **La Salle** zentroen sareko zuzendaria.

11:30 Atsedena.

12.00. **Laneko mahaia edo bigarren/hirugarren hitzaldia**: tresnak eta/edo ikuspegia Hirugarren Sektore Sozialetik.

Ikuspegiak Hirugarren Sektore Sozialetik

- **Rocio Lopez**, **GKEren arduraduna eta Lealtad Fundazioaren analista**. Hirugarren Sektoreko Complianceren batzorde teknikoa eta azterketa-batzordea ordezkatuz, **World Compliance Association**-en.

Tresnak

- **Marisa Gomez Crespo**. **POASeko zuzendaria**. Erakundeetan arrisku penalen mapa eta gizarte-erakundeentzako autodiagnostikoko eta complianceko gida praktikoa.

14:00 Jardunaldiaren amaiera.

Izen ematea:

<https://forms.gle/NrNsy8y1796QM258>

Zenbait esteka eta erreferentzia

Complianceren Espainiako Elkarte

<https://www.asociacioncompliance.com/>

Casanovas Ysla, A (koord.) *Libro Blanco sobre la función de Compliance*. Ed. Ascom, Madril, 2017ko martxoa, 51 orrialde.

12 Compliance koaderno⁵

World Compliance Association

<http://www.worldcomplianceassociation.com/>

<http://www.worldcomplianceassociation.com/35/comite-trabajo-compliance-en-el-tercer-sector.html>

<http://www.worldcomplianceassociation.com/marco-normativo-internacional.php>

Complianceri buruzko UNE-ISO ARAUAK eta zerikusia dutenak (AENOR eta Lloyd's Register-etik hartuta)

UNE 19601:2017 **UNE**

Egoera: **Indarrean dagoena** / 2017-05-17

Compliance penalaren kudeaketa-sistemak. Eskakizunak, erabiltzeko orientazioarekin. Erakundeek beren betebeharrak betetzen ez dituztelako aurre egin beharreko arriskuak antzemateko eta kudeatzeko tresna da. Erreferentzia Nazionala (Lloyd's)

UNE-ISO 19600:2015 **UNE**

Egoera: **Indarrean dago** / 2015-04-15

Complianceren kudeaketa-sistemak. Arauak. Betetze-kudeaketa arloan jardunbide egokiak ezartzen dituen nazioarteko erreferentzia da eta arrisku penalaren kudeaketa errazten du (Lloyd's).

ISO 31000. Arrisku-kudeaketaren printzipioak eta arauak: tamaina guztietako erakundeei, publikoak eta pribatuak, beren eragiketekin lotutako arriskuak modu eraginkorrean kudeatzen laguntzeko diseinatutako arriskuak kudeatzeko araua.

⁵ Madrilen aurkeztu ziren aurtengo urtarrilean: <https://www.asociacioncompliance.com/presentacion-de-los-cuadernos-de-compliance/>

Liburu Zuria bezalaxe, elkartearen webgunetik deskarga daitezke:
<https://www.asociacioncompliance.com/iecom/cuadernos-de-compliance/>

ISO 37001. Eroskeriaren kontrako Kudeaketa Sistemenezko Nazioarteko Arau berria da. Helburuen artean, erakundeei eroskeria saihesten, antzematen eta lantzen lagunduko dieten kontrolak ezartzen laguntzea nabarmendu behar da (Lloyd's).

Plataforma de ONG de Acción Social :

- Indicadores de Transparencia y Buen gobierno:

https://www.plataformaong.org/ARCHIVO/documentos/noticias/1567/1501071051_herramienta_transparencia_y_buen_gobierno

- Guía práctica de autodiagnóstico y Compliance para entidades Sociales:

<https://web.icam.es/bucket/Gu%C3%ADa%20pr%C3%A1ctica%20autodiagn%C3%B3stico%20y%20compliance%20para%20entidades%20sociales%20Final.pdf>